


211. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Ekonomia eta gizarte
ongizatea bermatzeko
diru laguntzak**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Inor atzean ez uzteko	3
Etxebizitzan alokairurako laguntzak	6
Ehun ekonomikoa sendotzeko dirulaguntzak	8
Landetako Plan Berezia	12
Larringo industriagunea	14

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



152.000€
inor atzean ez uzteko

Azpeitiko Udalak, beharra duten guztiei erantzun ahal izateko, duela hainbat urtetatik, udal laguntza propioak ditu eta beharren arabera egokitzen joaten da, urtez urte. Kontzeptu desberdinetan ematen du laguntza.

Azpeitiko Udalak duela hainbat urtetatik, udal laguntza propioak ditu okerreren pasatzen ari diren herritarrek lagundu eta gizate babesa eskaintzeko. Urtez urte, beharren arabera dirulaguntzaren zenbatekoa egokitzen joan ohi da, eta, beharrezkoa ikusten badu urtean zehar ere handitu egiten du. Helburua bat eta bakarra du: inor atzean ez uztea.



Eusko Jaurlaritzak ematen ditu gizarte bazterkerian edo erortzeko egoeran dauden herritarrek laguntzeko laguntzat. Gizarte Larrialdietarako laguntzak dira horiek. Urtez urte, udalei laguntza zehatz bat eman ohi die. Azpeitian, ordea, laguntza horrekin ez da iristen, beharra duten guztiei erantzuteko. Beraz, duela hainbat urtetatik, behar larrian dauden herritarren bizi kalitatea bermatzeko helburuz udal laguntza propioak ditu udalak. Hori izan zen udal laguntzak sortzeko konpromisoa, eta konpromiso bera berretsi du urtez urte udalak.

Laguntza horien funtsezko helburuak hauek dira:

A) Autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasunak eragindako beharrian pertsonalak eta familiakoak prebenitzea eta horiei erantzutea.

B) Babesgabetasun-egoerek eragindako premiei aurea hartzea eta erantzutea.

C) Bazterkeria-egoerei aurea hartzea eta erantzutea, eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

D) Larrialdi-egoerek eragindako beharrian pertsonalei eta familiakoei aurea hartzea eta erantzutea.

Udalak 2023. urtean 152.000€ko diru poltsa jarri du behar horiei erantzun ahal izateko.

Laguntza hauek urte osoan eska daitezke. Dirulaguntza honen inguruko galdera edo tramitaziorako Udal Gizarte Zerbitzuetako bulegora jo dezakete herritarrek.



**Etxebizitzaren inguruko
hainbat gasturi zein
oinarrizko bestelako
gastuei erantzuteko
laguntzak dira**

ETXEBIZITZA GASTUEI AURRE EGITEKO PRESTAZIOAK

- Alokairurako fidantzak
- Alokairua
- Amortizazioa
- Mantentze-lanen gastua
- Energia gastuak
- Fede oneko zordunak etxetik botatzea
saihestea
- Etxebizitzako aparteko gastuak

OINARRIZKO BESTELAKO GASTUEI AURRE EGITEKO LAGUNTZAK

- Begi protesiak
- Hotzen konponketa protesiak
- Botika gastuak
- Audifonoak
- Gastu soziosanitarioak
- Hileta gastuetarako
- Gizarteratzeko laguntzak. Formakuntza
laguntzak, ikas materiala, aisialdi eta denbora
libreko gastuak, kirol patronatuko kuota eta
beste hainbat jarduetarako laguntzak

LOKALA MANTENTZEKO GASTUAK

Herriko lokal batean merkataritza jarduera bat duten pertsonen energia-gastuetarako (argia eta gasa ordaintzeko, mantentze gastuetarako (kontribuzioa eta ura) eta alokairu gastuei edo lokalaren kreditua ordaintzeko laguntza jaso dezakete baldintzak betetzen badituzte.

Gazteen emantzipazioa laguntzeko, etxebizitzen alokairurako laguntzak abian dira



Azpeitiko Udalak 2013. urtetik abian ditu etxebizitzen alokairurako laguntzak eta aurtengo deialdia ere abian du. Laguntzaren horren bidez, gazteen emantzipazioa bultzatzea edo erraztea izan da helburua hasieratik, baina beharrak ikusita beste hainbat sektoretara ere zabalduz joan da laguntza. Hala, gaur egun, mugikortasun urria duten herritarrek, bananduta edo dibortziatuta daudenek, 70 urtetik gorakoek eta alargunek ere jaso dezakete laguntza, badituzk betetzen badituzte. Urriaren 15a izango da aurtengo diru laguntzen eskaera egiteko azken eguna.

Gazteen kasuan, eskatzaileentzat Eusko Jaurlaritzaren Gaztelagun programako laguntza-eskaera egina izatea ezinbestekoa da. Laguntza horren osagarria baita udalaren laguntza. Gaztelagun laguntza ahal bezain pronto tramitatzea gomendatzen zaie alokairuan bizi direnei.

LAGUNTZAREN XEHETASUNAK

- Alokairua ordaintzeko, gehienez, 350 euro emango ditu udalak, eskaera bakoitzeko.

- Alde Zaharra Biziberritzeko prozesuaren baitan, gune horretan alokairuan bizitzen jartzen direnek 50 euro gehiagoko laguntza jasoko dute. Beraz, Alde Zaharrean etxea alokatuz gero, gehienez, 400 euroko languntza izango dute.
- Alokairuaren errentak 650 euro baino gutxiagokoa izan behar du.
- Laguntza hamabi hilabetekoa izango da.

DIRU-SARREREN ARABERAKO LAGUNTZAK

Dirulaguntzaren zenbatekoa, eskatzaileen diru-sarreraren arabera ezarritako atal sistema baten oinarritzen da, atal bakoitzari portzentai bat

0,00 € - 15.000,00€ alokairuaren % 60

15.000,00 € - 21.000,00 € alokairuaren % 50

21.000,00 € - 30.000,00 € alokairuaren % 45

30.000,00 € - 35.000,00 € alokairuaren % 35

Eskatzaileek 350€/hileko arteko dirulaguntza jaso dezakete; 50€ gehiago alokatutako etxebizitza Alde Zaharrean badago

AURKEZTU BEHARREKOA

Eskabidearekin batera, honako agiri hau ek aurkeztu beharko dira:

1. Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren fotokopia
3. Jaiotza ziurtagiri literala (Erregistro Zibila).
4. Etxe bizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, indarrean dagoena
5. Banku kontu baten titularitatea egiaztatzen duen banku agiria.
6. Etxebiden izena eman izanaren edo izena emateko eskabidea aurkeztu izanaren egiaztagiria
7. Estatu mailan etxebizitza jabe ez izatearen ziurtagiria
8. Banandu edo dibortziatuta dauden pertsonen kasuan: Epai irmoaren fotokopia, non zehazten den hitzartutako seme-alabengatiko mantenu pentsioa.
9. Dagokion kasuan:
 - Lanbidek igorritako ebazpena (EPO kobratzea dagokion edo ez adierazten duena)
 - Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena (Gaztelagun alokairu laguntza kobra tzea dagokion edo ez adierazten duena)
 - Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena (Eskubide Subjektiboaren Prestazioa kobratzea dagokion edo ez adierazten duena)

ESKAERA EGITEKO AZKEN EGUNA: URRIAK 15



Ehun ekonomikoa sendotzeko dirulaguntza lerroak abian dira

Herriko ehun ekonomikoa sustatu eta langabetuen kontratazioak biltzatzeke Sustapen Ekonomikorako laguntzen deialdia abian jarri du udalak. 400.000€ bideratuko dira aurtengoan.

Sustapen ekonomikoa Azpeitiko Udalaren lan lerro nagusinetariko bat da azken urteotan. Herriko ekonomia indartzeko eta sare sozioekonomikoa sendotzeko helburuz, Sustapen Ekonomikorako laguntza propioak ditu udalak. 2023ko aurrekontuetan 400.000€ko diru poltsa onartu zuen horretarako eta dagoeneko deialdia abian da. Zehazki, lau lerro nagusitan banatuta daude laguntzak:

1. Zerbitzuen sektoreko eta lehen sektoreko jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak. 100.000 euro
2. Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak, eraikuntza sektoreko gremioei eta garraiolariei bideraturiko laguntzak. 160.000 euro

3. Ekintzailetasuna sustatu, bereziki gizarte ekonomian eta izaera estrategikoa duten jardueretan. 65.000 euro

4. Langabezian dauden pertsonen kontrataziorako laguntzak. 75.000 euro

Laguntzetan sektoreen oreka mantentzea bilatzen da, baina industriak herrian eta eskualdean duen garrantziaren jakitun, sektore horretara diru kopuru nabarmena bideratzen da.

KONTRATAZIOAK BULTZATU

Ehun ekonomikoa bultzatzeaz gain, langabeziari aurre egiteko langabetu azpeitiarren kontratazioak ere laguntzen dira diruz azken urteotan.

Azpeitian, maiatzeko datuen arabera, %7koa da langabezia tasa; eskuladeko (%7,3), Gipuzkoako (%8) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (%10) batezbestekoaren azpikoa. Generoaren arabera, alde nabarmena dago, ordea; gizonen langabezia tasa %4,9koa da eta emakumeena %9,4koa da. Bide horretan, Azpeitiko udalak bereziki laguntzen ditu emakumeen eta 45 urtetik gorako langabetu azpeitiarren kontratazioak; bereziki industrian egiten direnak.

LAGUNTZEN XEHETASUNAK

ZERBITZU SEKTOREKO ETA LEHEN SEKTOREKO JARDUERAK INDARTZEKO DIRULAGUNTZAK.100.000€

Helburua da sektore horietako jarduerak indartzea eta berriak sortzea da. Honako hauek dira eremu honetan diruz lagunduko diren jarduerak:

- Zerbitzuen sektorean eta lehen sektorean lehiakortasuna sustatzeko ekintzak edo jarduerak egitea. Diruz lagunduko dira, bertako produktuen kontsumoa, inbertsioak, lokalak handitzea, digitalizazioa (sare sozialak eta webguneak) eta Ticket Bai sistemaren aholkularitza eta ezarpena; euskaraz ezartzen den kasuetan, gainera dirulaguntza gehigarria jasoko du
- Lehen sektorea ezartzea, eraberritzea edo finkatzea. Nekazaritza ustiapenen lehiakortasuna eta ingurumeneko jasangarritasuna hobetzeko jarduerak sustatu, baita nekazaritza-ustiapenetara nekazari gazteak bultzatzeko jarduerak ere.
- Zerbitzuen sektoreko eta lehen sektoreko jarduerak abiatzea, merkatu azterketak eta eskualdatzeak egitea.
- Zerbitzuen sektoreko eta lehen sektoreko jarduera berrien lokalen alokairua, Alde Zaharrean bada laguntza handiagoa izaten da.

- Energia berriztagarriak eta efizientzia energetikorako bidean egindako inbertsio edo aholkularitza gastuak (diagnostikoak, auditoriak, inbertsioak...)

INDUSTRIA PROIEKTU ESTRATEGIKO EDO BERRITZAILEAK ETA ERAIKUNTZA SEKTOREKO GREMIOEI BIDERATUTAKO LAGUNTZAK.160.000€

Azpeitian industria-proiektu estrategikoak eta berritzaileak, eraikuntza sektoreko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna bultzatzeko ekintzak eta garraiolari sektoreko autonomoak bultzatu nehi dira lerro honen bidez. Honako hauek dira eremu honetan diruz lagunduko diren jarduerak:

INDUSTRIA PROIEKTU ESTRATEGIKO EDO BERRITZAILEAK

- Proiektu estrategikoak, berritzaileak, digitalizazioa bultzatzen dutenak eta Azpeitiko industriaren dibertsifikazioa bultzatzen dutenak lagunduko dira diruz. 8.000€ arteko laguntzak emango dira.
- 15 eta 50 langile artean dituzten enpresentzako inbertsiotarako laguntzak emango dira, 10.000€ artekoak.
- Enpresa berriak. 20 langile baino gehiagoko enpresa berriak Azpeitian kokatzea. Gutxienik instalazio eta ekipamendu teknikoak teknologikoak 500.000€ko inbertsioa egiten duten enpresek 50.000€ko dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute.
- Berdintasun Plana. 50 langile edo gehiagoko enpresek Berdintasun Plana egiteko laguntza. 50 langile do gehiagoko enpresek 1.000€ arteko laguntza jaso ahal izango dute; 250 langile edo gehiagokoek 5.000€.Energia

Ehun ekonomikoa sendotzeko dirulaguntzak

- Berriztagarriak. 250 langile edo gehiagoko enpresek efizientzia energetikoa edo energia berriztagarriak ezartzeko auditoria, azterketa eta inbertsiotarako laguntzak jaso ahal izango dituzte. Inbertsiaren arabera, gehienez 10.000€ko laguntza jaso ahal izango dute.

Ekoizpen-prozesuen optimizazioa, bezeroentzako hornidura edo/eta zerbitzu katea hobetzea, pertsonen kudeaketa hobetzea, merkatu kuota handitzea, merkatu berrietarako sarbidea, soluzioak produktu-meterian, efizientzia hobetzeko barne kudeaketa ontzea eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetzeko laguntzak izango dira. Inbertsioaren arabera, gehienez 10.000€ laguntza jaso ahal izango da.

ERAIKUNTZA SEKTOREKO ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO DIRU LAGUNTZAK

- Sektorearen digitalizazioa bultzatuko duten ekintzak. Enpresen sareko ikusgarritasuna handitzeko erremintak sortzea edo berritzea.
- Sektoreko ETEetan inbertsioak bultzatzea. Bereziki indartu da atal hau eta 10.000€ arteko laguntza jaso ahal izango da inbertsioak, makinaria lokalen handitzea... laguntzeko.
- Sektoreko ETEEEen energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa bultzatuko dituzten ekintzak. Plaka fotoboltaikoak, energia kontsumoa jaisteko ekintzetarako laguntzak, diagnosiak, auditoriak...

EKINTZAILETASUNA SUSTATZEA, BEREZIKI GIZARTE EKONOMIAN ETA IZAERA ESTRATEGIKOA EDO BERRITZAILEA DUTEN JARDUERETAN. 65.000€

Bereziki, honako sektore hauetan enplegua sortzeko helburua dute: gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan.





**Ehun ekonomikoko
sektore desberdinak
laguntzeko 400.000€
bideratu ditu Udalak
Sustapen Ekonomikoko
laguntzetara**

- Autonomo eta ekintzaile berriek 3.000 euroko dirulaguntza jasoko dute.
- Dirulaguntza honetarako, honako hauek soilik hartuko dira ontzat: lan elkartuko kooperatibak, lurraren ustiaketa komunitarioko kooperatibak eta lan sozietateak. Ezaugarri horiek dituzten enpresek 5.000 euroko dirulaguntza jasoko dute.

BALDINTZAK: Azpeitian erroldatua egotea, enpresa eratzerakoan.

LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONEN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK. 75.000€

Zerbitzuen sektorean, merkataritzan zein ostalaritzan, lehen sektorean eta industriaren sektorean eginiko kontratazioak lagunduko dira.

- Langabezian dauden pertsonen kontratazioa, aldi baterako kontratuak eta mugagabeak, lanaldi osokoak zein lanaldiaren zati batekoak. Kontratu mugagabeak dirulaguntza kopuru handiagoa izango du.
- Industria sektorean egiten diren kontratazioek %25eko laguntza gehiagarria dute kontratatutako pertsona emakumea bada edo 45 urte bain gehiago baditu. Kontratatutako pertsona 45 urtetik gorako emakumea bada %50eko gehiagarria jaso dezake.
- Formakuntza eta praktiketako kontratuak %25 gutxiago lagunduko dira.

Laguntza horien inguruko deialdia eta oinarriak www.azpeitia.eus-eko dirulaguntzen atalean aurki daiteke. Eskerak egiteko azken eguna urriaren 15 bitartean izango da eta informazio gehiago edo tramitazioan laguntza behar dutenek Azpeitia Berritzenera (943-15 71 83 edo iazpeitiaberritzen@azpeitia.eus) edo Iraurgi Berritzenera (943-02 60 69 edo info@iraurgiberritzen.eus) jo dezakete.



Landeta eraberritu, ordenatu eta dagoenetik abiatuta hobetzeko helburuz, Azpeitiko Udala Plan Berezia egiten ari da eta maiatzaren hasieran eman zion plan horri hasierako onarpena. Orain, ingurumen tramitazioa egin, argitaratu eta planari alegazioak egiteko epea irekita dago.

Aktibitatearen egoera hobetu eta hutsik dagoena erakargarri bihurtzea helburu

Landetako hainbat eremuren egoera hobetzea helburu, azken aldian hainbat azterketa egin dira. Lehenik, Landeta osoa aintzat hartuta egin zuen azterketa bat udalak. Azterketa osoa ikusirik, eta denean eragitea zaila dela jakinik, okerren dagoen eremua zehaztu zuen udalak. Hala, orain, bertako egoera hobetzeko helburuz Plan Berezia abiatu du eta maiatzean eman zitzaion hasierako onarpena.

Egindako azterketek, besteak beste, jasotzen ditu etxebizitzaren kokalekua eta egoera, merkataritza eta ostalaritza eta industriaren eta pabilioien egoera. Azterketa zabal horretatik abiatuta, Landetako industriaguneko zatirik konplexuena zein zen identifikatu eta hor jarri dute abiapuntua. Zehazki, kiroldegi aurreko eta Amue pareko biribilguneak lotzen dituen GI-631 errepidetik, Ibai-eder ibaira arteko gunea. Arretxe kalea eta ingurua berrantolatu eta bertako aktibitate ezberdinen arteko elkarbizitza hobetu eta gunea erakargarriago bihurtzeko plana osatu dute.

Eremuak, guztira, 42.945 metro koadroko azalera du eta etxebizitzak, taberna eta jatetxeak, aktibitate industrialak, aktibitate komertzialak, pabilioi hutsak eta abandonatuak, kale estuak eta ondo antolatutako gabeak aurkitzen dira: Egoera desordenatu horri epe labur eta ertainean irtenbidea emateko proposamenak lantzen ditu abiatutako planak.

Dagoenaren erradiografia egin dute. Zer dagoen aztertu: aktibitate komertzialak, industrialak, etxebizitzak... eta dagoena mantendu eta hutsik dagoena erakargarri uzteko neurriak jaso dira. Dauden merkataritza gunek, etxe edo industriaren egoera hobetu eta hutsik daudenak betetzeko erakargarri egiteko neurriak proposatzen ditu planak. Azkenean, egindako azterketatik dagoen hori mantenduta etorkizunean eremu horren garapen ordenatu bat egiteko modua osatu dute.

PLAN BEREZIAREN XEHETASUNAK

Erabilera oso ezberdina duten aktibitateak elkarbizi direnez, bi azterketa mota egin dituzte planaren baitan: alde batetik, Azpeitiak duen uholde arriskuaren baitan, arriskua gutxitzeko hartu

beharreko neurrien azterketa egin da; eta, bestetik, Arretxe kalearen egoera aztertu da.

Arazo nagusiei dagokionez, kaleen zabalera oso estua da eta trafikoa erraztu eta gunek erakargarri bihurtzeko oztopoa da hori. Ibilgailuen aparkaleku gutxi dago eremuan, etxebizitzak intentsitate ezberdineko industriarekin elkarbizi dira eta urbanizazio eta pabilioi zaharkituak ditu.

Epe laburrean, zuzkidura publiko bi eremutan eskuhartuko da. Alde batetik, Arretxe kaleko irteera hobetzeko eta aparkaleku berriak egiteko hutsik eta abandonatuta dagoen pabilioi bat expropiatu eta botatzea aurreikusten da. Horretaz gain, Urak agentziarekin elkarlanean inguruaren uholde arriskua txikitzeke ibaiaren zabalera handituko da eta ibai ondoan pasealekua egiteko hainbat eraikuntzaren retranskezioa egingo da. Hala, ibai ondoan, oinezkoentzako pasealekua, aparkalekuak eta noranzko bateko ibilgailuen pasoa egingo dira.

Epe luzerako ekintzen baitan ekimen pribatuko beste bi eskuhartze jasotzen ditu planak. Eraikinen eraikigarritasuna mantenduz, eraikinak berritzean egin beharreko retranskezioa jasotzeaz gain, Plan Orokorrean eremu erresidetzial gisa kalifikatuta dagoen, eta orain artean horrela garatzeko interesik izan ez den partzela bat, eremu industrial izatera pasatuko da.

INDUSTRIAREN GARAPENERAKO OINARRIA

Azpeitiko ekonomiaren motorea industria da; eta hala izaten jarraitzeko helburuz industria azpiegiturei loturiko bi proiektu handi ditugu eskuartean momentu honetan. Alde batetik, Larringo eremuaren garapena eta Landetarena.

Landeta eraberritzeko helburuz, azken urteotan egoera hobetzeko hainbat proiektu garatu ditu udalak. Hala, han-hemenkako asfaltatze lanez gain, Azpeitia eta Urrestilla lotzen dituen bidegorriaren lotunea egin da Landetako kaskoa hobetzeko obrak ere egin dira, besteak beste.

Larringo industriagunea garatzeko plan partzialari behin-behineko onespena eman dio udalak

Aurrez indarrean dagoen plan partzialean aurreikusitako antolamendu irizpideak aldatzea onartu da; eskualdeko enpresek dituzten beharrekin bat ez duelako egiten. Hala, industria txikiko zonalde bat izatetik tamaina jakin bateko enpresak kokatzeko ahalbideratuko duen partzela handiak izatera pasatuko da.


Azpeitiko industria beharrei erantzuteko helburuz, 2020ko azaroan Larrin eremua garatzeko konpromisoa sinatu zuten Azpeitiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak. Eta, orain, tramitazio horren baitan Larrin 22HE-ko Plan Partzialaren behin-behineko onarpena eman zion maiatzean udalak dokumentuari, alkate dekretuz.

Beraz, Larrin industria eremu bilakatzeko pauso bat gehiago eman da, eta udala bide horretan hartutako konpromisoak betetzen ari da. Enplegua, lana eta ekonomia bultzatzeko helburuz abiatutako proiektua da Larringo industriagunearen garapena.

Lur industrialak egokitu eta eskuratzea estrategikoa da eta, bide horretan, udala landetan eskuhartzen

ari da zaharkituta eta degradatuta dagoen eremuari buelta emateko, baina gaur egungo industria beharretara egokitutako eremuak sortzea eta eskura jartzea ere ezinbestekoa da, industria berria erakartzeko. Eta behar horri erantzuteko izango da Larrin. Horretarako, inbertsio publiko garrantzitsua egitea aurreikusten da; 20 milio ingurukoa.

Plan partzial berri honen onarpenaren bidez, aurrez indarrean dagoen plan partzialean aurreikusitako antolamendu irizpideak aldatzea onartu da; eskualdeko enpresek dituzten beharrekin bat ez duelako egiten. Hau da, industria txikiko zonalde bat izatetik tamaina jakin bateko enpresak kokatzeko ahalbideratuko duen partzela handiak izatera pasatuko da. Helburu nagusi horretatik abiatuta, bestelako



antolamendu irizpideak ere zehaztu dira. Hala nola, Hiri Antolamendu Orokorrean aurreikusitako zehaztapenetara egokitzen den antolamendua diseinatzea; eraikuntza-tipologiaren aukera bat aurreikustea, bai pabiloi modularrak eraikitzeke, bai tamaina ertain edo handiko industriak ezartzeko; barneko bide sare sinplea diseinatzea zerbitzu sareak kontzentratu ahal izateko; urbanizazio kostuak gutxitu eta arrazionalizatzea, ingurumena berreskuratzeko ekintzak aurreikustea eta eremuan dauden bi erreken ertzetako landareri potentziala bertako espezieekin lehengoratzea.

INDUSTRIAGUNEAREN XEHETASUNAK

Larrin poligonoaren jarduketa eremua 210.210 m²-ko azalera baten gainean dago, eta hasierako bideragarritasunaren azterlanak 4 partzela handi

urbanizatzeko proiektua aurreikusten du, 15.072 m²-tik 49.800 m²-ra bitarteko azaleretatik ateratzen direnak. Hau da, guztira 107.409 m2 industriarako lur zatia. Oinplanoko gehieneko okupazioaren azalera 64.445 m2koa izango litzateke eta solairuarterko aprobetxamendua %25ekoa, hau da, 16.111 m²-koa. 20 milioi euro inguruko inbertsioa izango dela aurreikusia dute.

Tokiko garapen ekonomikoarekin eta lurralde-ikuspegiarekin bat datozen helburuak lortzeko lankidetzeta eta konpromiso publikoaren adibidea da Larrin. Gainera, industria berriaren benetako beharrei erantzuteko enpresa-inguruneak zabaltzen, garatzen eta modernizatzen laguntzen du.



Joxe Takolo bekaren irabazlea

‘Ixiltasunetik munduari begira’

Itziar Agirrebarrena eta Enrike Zeberio gorrek,
Josu Iztueta entzulea gidari zutela,
Marokora egindako bidaiaren inguruko
dokumentala egingo dute

www.azpeitia.eus

